

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Hutsik dauden merkataritza aretoen estetika berreskuratzeko plana arautzen duen prozeduraren baldintzak

Laudioko Udaleko alkate-udalburuaren 2019ko abuztuaren 29ko 2045 dekretu bidez erabaki zuen merkataritzaren estetika berreskuratzeko III plana (hutsik dauden merkataritza aretoak) arautzen duen prozeduraren baldintza arautzaileak.

Laudio Udalak, bere ekonomia eta merkataritza jarduera sustatzeko lanean, asmoa du gauzatzeko hutsik dauden merkataritza aretoen estetika berreskuratzeko plana, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasuneko Sailak batera finantzatzen duen Hirigune 2018 izeneko hiri merkataritzako lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasunerako eskualdeko estrategiak sustatzeko zuzendutako laguntza-programaren bitartez, Laudioko hiri ekonomiaren plan estrategikoa (2016) eta Laudioko merkataritza biziberritzeko plan berezian (2014) azaldukoaren ildotik. Plan horren helburua da sustatzea merkataritzako ekonomia jardueraren bultzada hutsik eta inolako jarduera barik dauden merkataritza aretoen kanpo aldea atontzearen bidez, merkataritza paisaian esku-hartuta.

Herriaren erdiguneko merkataritza gunean, une hauetan, identifikatu dira areto ugari hutsik, okupatu gabe, jardueraren presentzia barik daudenak. Horregatik beharrezko iritzi zaio sektorean esku-hartze publikoari merkataritzaren irudia hobetzeko; egintza hori mesedegarria eta onuragarria izango da, baita zonalde horretan zabalik dauden establezimenduentzat ere eta oso aldeko era onean eragingo du atondutako aretoetan establezimendu berriak zabaltzeko.

Hirigune 2018 hiri merkataritzako lankidetzak, dinamizazio eta lehiakortasunerako eskualdeko estrategiak sustatzeko zuzendutako laguntza-programaren bitartez hutsik dauden merkataritza aretoen estetika berreskuratzeko programan parte hartzeko interesa duten aretoetako jabeen zerrenda lortzea.

Deialdiaren baldintza guztiak eta aurkeztu behar den dokumentazioa Ekonomi Garapen Arloaren web orrian www.laudiogarapen.eus eta Laudioko Udalaren web orrian www.laudio.eus kontsulta daitezke.

Laudion, 2019ko abuztuaren 29an

Alkatea

ANDER AÑIBARRO MAESTRE